AZALPENAK

ZALAPARTAK

LAUAXETA

España zer dan, iñok eztaki, baña españatafak zer diran, gitxijagok. Orein ixakerea baxen bijufik, ezta ludijon. Eundi-zia r, agintari ixatiari emonak dra, ta beste bat euren buru ixaterik eztabe gura. Baña euren menpian daukoenak, azkatasun pitin bat eskatuten ba'dau, españatafen zalapartak, amaigiak dira.

Catalandafai Araudija abindu eutsoen lenago. Nork uste ba araudi ori taütik esan barik emongo yakoela? Aldunak beintzak, ontzat aftu eben. Baña ipuñekuak legetxe oneik be egiten dabe. Zein dan ipuin ori?

Jauregira eldu gi-zan, bein, gixon bald af, ipingitsu ta zozo-lelo bat. Astua ikusi eban, jauregi onduan eta diño:

—Asto ofi erakutsiko izketan, amaf ü rte bafu.

Au entzutian, ikeratu ziran an ziranak. Juan yakozan jaunari, lelotzar aren itzak adirazoten. Jaunak be begi-bizkof entzun eban olako itza.

—Amaf urtian asto bati, izketan erakutsiko dautsola? Orixe ezta gauza efaza ba. Ekafi egistazube gixon ori.

Otseñak beinguan dei-egin eutsen ba. "Geure ugazabeak ots dagitzu. Etofi zadixala, diño.

Jaunaren aufian be, gixonkotiak lengo itzak bafiz esan euzan. Janarija ta yantzija, alogeratzat eskatu euzan. Besterik ez eban nai. Ifunbe au, amai-ostian asi zan astuagaz, geure aguria.

Egunak juan, egunak etofi, astuagaz sa fi eguan geure au. Olako baten ifaundu eutson jauregiko otsein batek:

—Baña egija da gero, astuari izketan erakutsiko dautsozuna?

—Ez. Astuari ezin erakutsi legijoke.

—¡Ai ene bada ta! Ona zagoz orduban. Geure ugazabeak urkatuko zafu.

—Eztaust ardura andirik egiten ofek. Amaf urte bafu, non egongo garan, batek baki. Zeure abintzaetan luzarorako egin egixuz itzak eta ondo bixi ixango zara.

Amaf eta ogei ufte bafu emongo dozuzan bezuzak, ludija lakuak bediz, etorkixunak eperdizgorako asko egiten dauz eta.

Ofa ipuña. Amaf urterako astuari izketan erakutsiko eutson arek. Bost egun bafu ixan ba'zan etzan, ausartuko, baña amaf bafu... Españatafak be bardin egin dabe. Iñoiz etzirala etofiko Araudijak emon biarko ziran egunak, uste eben. Orduban abintza andijak. Orain baña araudijak bakotxari emoteko egunak emen dira. Zer egingo?

¡Zelako zalapartak eta otsak! Lateffjaren batasuna, galduko ei-da, araudijen bitaftez. Antziñako edestija bafiz ikustekuak gara. Lenago autonomia colonial eskatuten eben, Cuba aldekuak be. España'ko ja urliak ez eutsoen ezez emon gura ixan, lateffjaren batasun-aufka ei-ziralako. Gero gerokuak etofi yakoezan.

Gauf (autonomía regional), eskatuten dautsoe. Alpefik, begijak itxita dagoz. Ordukua, jazoko danetz nago.

Madrid'ko izpafingijak dozuz araudijaren aufka suba piztu dabienak. "El Imparcial" da gustijen artian, gaiztoena. Neure ustez izpafingi onek joko ona darabil. Etzan salduten garaurik, eta araudijen aurkako otsakaz, zer dan jakiteko be, batzuk erosten dabe.

Alderdi gustijetako gixonai ifaunduten dautsoe, euren eretxija araudijetzaz. Gixon guren ofeik, aufka egiten dabe. Baña "Heraldo de Madrid" deritxon izpafingijak be ifaunketa bardiñak egin dauz eta lengo gixonak, erantzun aldatubak diñoez.

Gaztelafen agindu-naya baño ezta gauza onetan agertzen. Iñoren kontura bixi gura dabienak, ogija galduko dabelako azk uria eukiten da safi. España ta kalabazea bardin yakoez askori, euren bixitza nasaya eztabe galdu nai. Ixan be españatafa beti ixan da alpefa, bestiaren kontura bixi ixan dana. Cervantes, Quevedo eta Villarroel'ek, idazle gustijak, agertzen dauskube gaztelafa. efiz-efi, amaikatxu zozokeriz, lanari ostikeka egiten.

Araudijetzazko zalapartak azalduko doguz, jakingafi diralako.

Egunekua

"ELAI-ALAI"

Ila onen 9'gafenan Gefnikaf "Liceo" deritxon antzokijan egingo dabezan antzoki-jai politen agefkai bat aftu dogu; "Jaun Zuria,,'ren zin edo juramentubaren argazki ta gustiko agefkaya, da bera.

"Elai-Alai" Euzkadi gustijan ezagutzen daben antzelari aldrea da, ta euzko-arazuak ondo polito erabilden dakijana gañera.

Olaeta'taf Sekunda'k arduraz zuzentzen dau "Elai-Alai", eta datofen asteleneko jaya be ondo geftauta eukiko dabela uste dogu, eta "Liceo" antzokija bete-bete egingo dala be bai.

Imprenta. Papelería. Artículos de escritorio
AGUSTIN LOPEITA
Larramendi, 19.
Teléfono, 11.900.
DONOSTIA

¿IGANDIAN ZUGAZTIETA'RA?

Bai irakufle, datofen igandian Zugaztieta'ra juan biaf da, "Zugaztieta'ko Euzko-Batzokija'ren" zabalkundera.

Of Gorozika alde ofetan bai eguan Euzko-Batzoki baten biafixana. Iñok uste daben baño basurdaki geitxubago ei dagoz, ba, Gorozika-alde ofetan.

Basamortubetako arizpietara ezkufak jaten bidaltzeko lakoxe irakaslien bat be ixan biaf dau, ba, beftan, ikastola umetxubai otoi egiten baño beste gauza batzuk irakasten alegin geyago egiten daben irakasle buru-ariñen bat.

Gaztela'ko Euzkadi'ratuten dauzan irakasliak onexek dira-ta, eurakandik itxaron geinkena gauza on aundirik ezin leike ixan.

Datofen igandian Zugaztieta'ratuko diranak baña euzkotafak ixango dira-ta, euzko-azija bakafik zabalduko dabe. Ekin eta jafai, ba, euzkotafak, euzko-azija erein biafa bai-dago-ta.

PELOTA-TXAPELKETAK

Euzko - Batzokijetako pelotarijak bai daragitsoe euren zeregiñian. Igazi dan egubenian Zabalbide'n jokaldi edefak ixan ziran. Gefnikaf-Batzokikuak, Bilbao'ko Euzko-Gaztedikuen aufka jokatu eben. Joko onek gogofetan be gogofak ixan biaf eban, gefnikafak ekiñalak egin ondoren tantu batafik irabazi ei eben-eta.

Befiozabal eta Zufiria Ariatza Batzoki'kuak Zaldibaf'tafen aufka efezago irabazi ei eben, 22'rako jokuan, 3 tantuan itxi ei ebezan-eta.

Txapela baña, ¿nortzuk eruango ete dabe?

Eztakigu ziuf esateko lez ondiño, baña, geuk begija jota daukoguzan irutik bat txapeldun ixan bayetz, txakuf-txiki batafik jokatuko geunke ofatio.

Iru oneik, irakufle, Ariatza (Villaro), Gefnika eta Lekeitio dira.

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 urrutizk

Lekeitiafak gogofak dira, ta euren eskuaftian daguan txapela eruan gura dabenak, ainka ariñak eta atzamaf zofotzak biafko dauz.

Afatijako zekofa be txikija ta gogofa ixaten da-ta, areik be euren txapelari gogof oratuko dautse, ta euren atzamaf-aftetik, eruan gura daunak, ixardi galantak bota biafko dauz.

Gefnikafak be eztagoz lo, areik be, ba, txapel ori mafe dabe, ta arduraz begiratuten dautse. Alberdi'k lan begigaz begiratuten dautso, ta beste iñok eruango dautsan baño lenago, istandak egingo dauz.

Areatza, Gefnika eta Lekeitio'ren eskuaftian dabil, ba, txapel ori. ¿Zeñek eruango ete dau? Kontxezi auzokuaren azpilego sardinea, mutilak, ezta berakutan irabazija ixango.

URIBITAFTE'TAF IBON.

GAZI = GAZAK

Ofila'ren lenenguan, au geunkona, ori zana, ta bestia ikusi beaf genduzala-ta, azkenian ezebez. Agobete agiñekaz laga gafubez.

Jaurliak azkenengo orduban dana galazo euasen; iragafita egozan itzaldi, agerketa ta abaf.

Ala-ta gusti-be, atxaki aundirik beaf-ez-edo-ta "asalto,,'ko txiñelak euren urteratxuba ein eben. San Francisco txaidian batzau zan aldra bat uxatzeko lenengo, ta geruago. Estacion txaidian idixil-eta edefa atarateko.

ALMACEN DE VINOS, ACEITES
José Manuel Alcorta Irazu
Servicio a domicilio
Aldamar, 4. Tel., 1-37-04. Donostia

Lenengo afatu dogun txaide ofetan nastetxuren bat, aundija ezpazan-be, urten zan ezkero, an ebiltzanai lepotik-bera emoteko zijua idoro ez ebenik ez dogu esango; baña bigafen txaide ofetan, ankia saftu ebela ta ondo sartube, ori bai esango dogu.

Zergatik itxumustuban jatzi bilbileti eta zipli ta zapla txaidian gora eresbatzari entzun ostian joian gixoste baketsubaz asafatziari, besterik ezin esan leyo: euren izkuntzan "que metieron la pata". An inguru-betan etzan gaizkilerik ez zaratagilerik, andrazko ta gixonezko bake-baketsubak baño.

Bilbao'ko bafi apurtxu-bat dakijan edozeñek daki, igande eguberdijetan eresbatzak bere jot-aldija amaitzian. Areatza'ko zubijan gora baskaitara eten dabela gixosterik geyenak, eta beraz ordu artan txaide ori beste ordubetan baño betiago juaten dala, baña txiñel ofeik zorijonian ¡erbestetafak ixan-ba! ta gixoste a, ikusi ebenian, zer egijen ezekiyela ¡amaika emakume gaxori bazkaritako gogua galdubazo eutsoen.

Dr. Antonio Echeto
Enfermedades de la infancia
Prim, 19. :: San Sebastián

Orain esan zeuk irakurle ezpada ori ankia sartzia.

Ostera beste leku-baten atara ein eben. Afikibar zeyan bilbilez abijada itzelian joyazala itxuldi bilbila ta danak atara eutsuben ankia, bilbiletik beintzat, eta batobatzuk bere lekutik be bai. ¡Garbitu etziranian!

Ostantzian eztogu ixan gauza gafantzikorik.

Ofatiño amafu baño len, izpafingijak esan daben guzuf bat suzendu gura neuka. "El paro fué absoluto el domingo" esan dabe, ta ori ezta egija.

Bestela esan begije Bidebafieta, Masustegi, Tivoli, Ronda, Gordiniz, San Francisco, Merced, Elkano, Doctor Areilza, Ripa, Agife, Marques del Puerto ta Fernandez del Campo txaidietan lapufak txindi ta gauzarik asko ostu dautsoezan biztanliak. ¡Mutil onak yagozak-ba eurak! guzufekaz ibilteko.

Beraz ezta egija izpafingijak esan dabena, lapufak ofilaren lenenguan iñoz baño lan geyago ixan daben ezkero.

ABELETXE.

Barriola'tar I. M.
Gaixotegi'ko sendagillea urdail - gibel - este.
GARIBAI, 20, 2'g. — DONOSTIA.

Uribe'ren jostolea
Alkondara eta enparauko gixon-janzkiyak
Lovola-kalea'n 3'garren zen bakiyan.
DONOSTIA'N

"Amama'ren ipuña"

Garate'taf J. M.'ari.

Lentxubago baten idazten zeban "Abefi-Eguna,,'ko gorularitxubak gomutarazo eutzuzala antziñako gorulak; eta gomuta bixi-bixija dozula zeure amama, ama ta iru afebeak iruten eta zeu arek irunitakua intxauskituten zeban bifartian, amama onak esaten eutzubezan ipuñak, eta abestuten eutzubezan abestijak; eta abestijetatik bat esaten zeban. ¿Gomutetan ete-zara, ipuñetatik bat, ondoren duan au efe-zan?

Bein bixi ziran, Peru, Marixe ta Anton mofoya. Peru, kafamaterua zan, eta London'era bere kafamatuofaz juan-etofijak egiten euzan.

(Peru ori, ipuñak itxuria daukon lez, euzkotafa ba'zan eta Euzkadi'n bixi ba'zan, ¿zelan juaten ete-zan London'era kafamatuagaz? Gero euzkotafok "atrasauak" garala esango dabe, ta antziña, gauf be egiten eztana egiten eban gure Peru'k. Euzkadi'tik London'era osterea kafamatuan.)

Marixe, andra nagi ta ondo-zale bat zan, eta Peru etxian zan gustijan beti gexo eguala-ta, batian oian eta bestian sutonduban, afpegi lafi bategaz egon oi-zan. Peru gixajuak alegiñik asko egiten eban bere emazte mafe-mafia osatzeko, ta dana alpefik. Baña, Peru bere kafamatuofegaz Londres'eruntz urteten eban eran, gure Marixe'k deitzen eutsen auzoko gustijeri ta jan eta edan eta dantzan jarduten eban Peru etofenafte, bafiro be gexo itxuria artzeko. Peru on-onak amaika gauza ekaften eutsozan bera osatzeko Londres'tik, eta euren artian "zirkun-bedafak". (¿Zertzuk bedaf ete-dira oneik?)

ERNANDORENA
ORTZLARI (DENTISTA)
PRIM-KALEAN, 31, 2.°. — DONOSTIA.

Anton mofoi on eta zitzo-zitzua zan, eta ezeutson ondo areisten Marixe'k Peru'ri egiten eutsona, ta egun baten edestu eutson bere ugasabari berak aldeten ebanian etxian jazoten zan gusti-gustija. Peru'k, gixajo afidijak, ezeutson ziñisterik be emon lenenguan; baña mofoyofek ainbeste bidaf bayeztu eutsonian, bere begijekaz ikustia gura ixan eban, eta esan eutsona egija ba'zan, kortan eukon mandorik edefena berari, mofoyari, beretzat emongo eutsola agindu eutson, eta gertau ziran, alkaf afuta, Marixe'ri ziñistu-erazotia ba'joyala London'era.

Marixe oyan eguan, safiian lez, agufegin eutson Peru'k, eta bere kafamatuofegaz urten zan... baña ixilik bafiro etxeratzeko. Sartu eban mofoyak otzarape baten bere ugasaba. (Peru txikija, edo otzara andija biarko zan ofatiño.)

Peru'k urten ebanerako, Marixe jagi oetik, eta bestetan lez, defu eutsen bere auzoko adizkidiei, ta danak batu ziranian dantzafubaz abestu eban:

(1) Peru guria London'en
Zirkun-bedafak ekaften.
A andik dan artian
Danok dantzatu gatezen.
Ai, oi, au egija,:
Peru guria London'en.

Eta auzoko gustijak berak lez dantzatubaz abestu eban:

Peru dogula London'en
Zirkun-bedafak ekaften.
A andk dan artian
Danok jolastu gatezen.
Ai, oi, au egija:
Daigu inguru Marixe.

Eta orduban mofoyak abestu eban:

Neure ugezabandra Marija,
Otzarapian daukot nausija.
Ak andik urteten daunian
Berotukotzu gefija.
Ai, oi, au egija:
Otzarapien nausija.

Eta orduban Peru'k egija zala ikusirik abestu eban otzarapetik urtenda:

Neure mofoi txorija,
Ik esan eustan egija,
Dantzan ikusiko nebala
Neure emazte Marija
Ai, oi, au egija:
Eutzat kortako mando zurija.

卐卐卐

Eztakit Peru'k Marixe'ri gefirik berotu ba'eutson edo ez, baña amafu ei-ziran ordutixetik zirkun-bedaf ekaftiok, gexuok amafu zirialako.

Eta alan ba'zan
Sartu dafela-kalabazan,
Eta urten dateela
Biforija'ko plazan.

ETE.

(1) Izneurtu onen eresija polita da, neure eretxiz beintzat.

LUIS ZATARAIN
MEDICO-DENTISTA.
Hernani, 2, 1.° - DONOSTIA

¡Emakume gaxua!

Bizkai'ko efitxu baten, emakume alafguna sei seme-alabagaz bixi zan. Emakume gaxuak, senafa il yakonetik, sendijaren zama aztuna bere bizkaf bigunan eruan biafa ixan eban.

Bere bijotzaren sei zatijak alikatu biaf, eta iñundik diru ez beste ondasun etofirik ez. Basteffak ilun; inguruban ezer agiri ez... ¡Etofkixunaren itzala!

Emakumiaren lan - sarija, etxiarentzat eutsingafi edo abe makala ixaten danafen be, gure alafgun gastia, gau ta egun lana sendo egiñaz, bere etxia jaso gurariko ebilan. ¡Gaxua...!

Egun baten, emakume zintzua, etxe andiki batera garbiketak egiten juan zan. Eta jauregi aretako eskaratzian lanian iñafdubala, bertako alaba nagosijari, beste gauza askoren aftian onan esan eutson: "¡Au nekia! Txiro ixan biaf dana ezin aberastu".

Neskatila a r e k, alafgunari entzuniko gustija, gabian afari edestu eutson. Eta jauregiko ugasaba, bijotz oneko gixona zan lez, efukitu zan; eta bijamonian, etxeko mofoi bategaz, ogi edef baten bafuan sei ufe-diru bialdu eutsozan.

Emakumetxubak, alako ogi edefa pozez artu eban; eta ogija esku ta begijakaz ondo arakatu ostian, bere kolkarako esan eban.

—¡Au ogijaren edefa! Nire umetxubak poz-pozik jango dabe. Gauf beintzat, goserik eztabe ixango... Baña... ogi onek, efe-bafija dalako, biaf-ba, jatordu bateko gosia baño eztausku kenduko. Ogi biguna, agiña zofotz sartubagaz asi ta amafu beinguan egingo geunke... Ta gero bijaf zer? Ez ete litzake oba, jataroneko ogi-au "Munguru,,'ko Mari Manu'ri iru bat aftogatik edo, trukatzia? Bai, obeto ixango da. Bestela, gauf ondo ta bijaf txafto gintzakez da.

ANGEL EIZAGUIRRE
CORAZON Y PULMONES.
RAYOS X Y ULTRAVIOLETA
Alameda, 14. Teléfonos, 12.509 y 12.450.
DONOSTIA.

Eta, berekautan esan ebazan itzok amafubagaz batera, "Munguru,,'ko etxanderjana juan zan; eta ogi efe-bafijaren ondez iru aftopil etxeratu ebazan.

Ganeko egun baten, ogija bialdu eutson zaldun agufgafijak, emakume alarguna kalia-ziaf joyala aurkitu eban; eta apuf bat itz-egin ostian ifandu eutson.

—Da, lengo egunian bialdu neutsun ogija jataronekua ixan zan?

Ifaun onegaz, gure emakumia, ezin geyagoan gofifu zan. Eta lotsaren-lotsaz begijak lufetik jasoteko be gauza etzala, erantzun eutson.

—Ara, ba, jauna, egi-egija esan biaf dautsot. Beofek bialduriko ogija, efe-bafija zalako, nire umiak beinguan iruntsiko ebela-ta, "Munguru,,'ko etxanderari, iru artopilen ordez emon neutson. Eta afto areik, nire etxian egun biko gosia kendu eben. Bijafko egunaren afduria be aftu egin biaf jauna...

Orduban jaun bijotz oneko arek, emakume alargunari efuki andiz begiratubaz esan eutson.

—¡Emakume gaxua! Zer egin dozun ba'dakixu? Bialdu neutson ogijak, zeure umetxubai egun biko gosia ezeze ile batzuetakua be kenduko eutsoen... ¡Auxe tamala! Ogijaren bafuan sei ufe-diru bialdu neutzuzan eta. Egija esaten dozu bai, diñozunian: "Txiro ixan biaf dana ezin aberastu" Eskubetan euki dozun diruba, auzoko andreari emon dautsozu ta. Zeu baño askozaz aberatsagua dan etxanderiari.

Academia Estornés
ESTUDIOS MERCANTILES
Contabilidad. Comercio. Taquimecanografía.
Mecanografía. LEGAZPI. 5. DONOSTIA.

Eta, gaxuak, negafez erantzun eutson. "Egija da bai... Jaungoikuak, onantxe txiro bixi nafen gura dabela afgiro ikusten dot." Ta, bere begijak zerura jasuaz, beñola, Josu gure Jaun mafiak Getsamani'ko baratzian otoitzian iñardubala esan eban legez, abots itunaz esan eban: "Afa, gauza gustijetan Zeure guramena egin begit".

Gau aftan, emakume on eta zintzo arek, bere umetxuak, mosu bana emonda ogeratu ostian, etxiaren gelarik otzenian, aulki zartxo baten jezafita negar eta negar egin eban...

Eta, ixuri ebazan malkuak, eruapenaren ontzi deunian pilatu ziralako, afi-bitxirik dirdiratsubenak lez edeftu ziran.

Eta, makal-apalak mafe-mafe dituzan Jauna'rentzat, pitxi bijurturiko malko garden arein oparija, oso begikua ta kutuna ixan zan.

MAÑARIKO.

JULIO ALBEA
MEDICO-PARTOS
MATIA, 52, 1.°-Telf. 12.115.-SAN SEBASTIAN

Garbiñetxu'ren zintzotasuna

Ene gotzon jagola
Mafe kutuna,
Jauna'k nire zaindari
Egin zafuna

Goxetik gaberaño
Gau eta egun,
Ixan zakidaz beti
Zu neure lagun.

Afizkuetan yagon
Ene Gotzona,
Ixan nadin euzkeldun
Kistaf on-ona.

Ikastaldijan eta
Olgaldietan,
Jakin nai dot ikasten
Eta olgetan.

Ikasle-lagun eta
Jolas-lagunak,
Gura dodaz euzkeldun
Bijtz on dunak.

Uftzi mafe dogula
Biotz-biotzez,
Jolastu gadixantzat
Bakez ta pozez.

Itzez eta egifez
Noz nai edonun;
Beti Kistaf zintzuak,
¡Beti euzkedun!

Kurtziak kendu dabez
Ikastolatik,
Guri Jaun-mafasuna
Kentzia gafik.

Guk baña mafe-mafe.
Dogu kurutza;
Berau dalako geure
Mafasun utza.

Lora gustijen Lora
Miren Neskutzak,
Lore deun biuftu beiz
Gure bijotzak.

Sendi Deunaz aizkide
Ixan ezkero,
Ezkara besten bilduf
Orain ez gero.

Afizkuetan yagon
Ene Gotzona;
Ixan nadin euzkeldun
Kistaf on-ona

E. K.

EMAKUME-ARLUA

Emakumiak idazten, azkenak ezik, aufenak doguz. Geure euzko-salan, loreño berezijak dira, "Tene", "Afitokieta", "Utarsus", "Mañariko", "Ete", Elizegi eta abaf. Idazle onenak dira emakume oneik. Baña beste batzuk be ba dira, efijetako izpartxubak labuf eta egoki bidalduten dauskubeze nak.

Baña bafuti baten esituta, emakume onein lana ikusten dogunian, goralduko dogu. Auxe dalakotz, larunbatetan EMAKUME-ARLUA argitalduko dogu. Idazlemiak badakije euren arlorako idazlanak biaf doguzala. Atiak zabalik daukoez, nai dabenak idazteko.

Olerkijetan urtenak diran gustijak, egi n begijez. Ipuñetan dakijenak be euren izenak erdotu ezdafezan, ekin begije.

Gixasemiok baño buru azkafagua dauko enezkero, eurek asmauko dabe zertzak idatzi.

Egunetan gafantzi andija daukoe emaku miaren lanak. Gixonezkuak egin ezin, bai? eta emakumiak egiden dabe. Andereño batz uk ixan dira euzkerearen eraliak be ta euren okef a. bafiz zuzendu biaf ixango dabe.

Izkuntzak edertasunik asko dauko emakume baten abuan. Lora bat dirudi. Baña lorai zer egiten yakoe, leyuan dagozanian? Ez-ete dakixu zelan diran leyoko lorentzijan?

Goxero, emakume batek uf garbija ixu rifen dautse. Eta autsik daukenentz be begi zoliz betestu. Lastef igarten dot zelakuan dan etxeko emakumia. Lora asko, leyuak zabalik, txorijak abeslari diran etxian, ema kume alaitsuba dala, edo nork daki.

Geure eliaren jauregi zar onetako leyuak be zabaldu biaf dira, leyoko lorentzijak ura jaurti, lilijak ixan dadixantzat. Ia ba, emakume lirañok, larunbatetan ofi txukuna ateraten dogunentz. Zebek agindu ko dozube, neu otsein nagokitzubelako.

LAUAXETA.

ERRIJETATIK

LEZAMA

NASKALDIJA.—Gudari dagozan tokijetatik etofita aufkifuten dira euren gurasoen onduan geure lagun mafe ta abeftzale sutsubak diran Arteaga'taf Bingen eta Dañobeitia'taf Joseba.

Ondo etofijak geure artera.

OFILA'KO DORAK.—Notin asko bilduten da egonoro-egunoro geure txadonan egiten diran ofila'ko loretara, eta oso atsegiñez egoten gara bertan geure efiko neskatila'k egiten dituezan abesti samuf eta gozuak entzuten.

Hotel Jáuregui
CONFORT E HIGIENE
Florida, 16. VITORIA. Teléfono, 1.626.

OSATUTA.—Gustiz bizkortuta aufkituten da geure lagun mafia dan Dañobeitia'taf Tiburtzi. Asko atseginduten gara.

BATZAFA.—Datofen igandeko bederatziterdietan, Martina'ren etxian egingo da batzafa geure Uri Buru'ko bazkide gustijak. Alegindu bertara elduteko gustijok.

BIZKAFGI'RA.—Gaste asko ixan dira igon diranak Bizkafgi mendira bertan axe osasuntsubak aftu eta jolastuten. Gurutz deura'ren egunian.

ARENTZA'K.—Urtaro lez egin dira geure efijan iru egunetan, afentza edo efobatibak.

TIRI.

PABLO MOLANO
De la clínica de San Antonio
Especial GARGANTA, NARIZ y OIDOS
Peñaflorida, 10. Teléfono, 14.168. Donostia.

SEGURA

MISIO-EGUNA.—Igande onetan ilaren 8'an egingo da ufte bitik, ufte birako misio egun ospetsua, Jaunartxe, itzaldi eta beste elizkizun egokiekin.

OFILEKO LORAK. — Urtero bezela euzkel abesti goxo eta elizkizun alaiz ospatzen ditugu Ofil edo Mayatz alai onetako lorak, Ama mafearen aintzaz.

DONOSTI'RA.—Egun batzuek igarotzera Donostiratu da Aldanondo'taf Margarite. Etxeratu Oreja osalari jaun ospetsuaren osategian obegotuta etxeratu da Zurbano jauna. ¡Asko pozten gera!

GEXO.—Aspalditxoan gexorik etxealdetik daude Elosegi'taf M. eta Gofotxategi'taf S. jaunak. Laister osatzea opa diegu.

"CAFES MAYA"
IMPORTACION DIRECTA
Sarasate, 15 IRUÑA

JUAN-ETOFIA.—Astelenean emen izan ziran Alustiza'tafak.

"LEIZA-PE,,'RI-POZIK.—Irakufi degu ustegabeko zure idazki txukun eta sakona. ¡Zorionak eta ongi etofia ba-da! eta jafai zintzo, ofela idatzi daikianarentzat gai ugariak dauzkatzu-ta.

PERIA.—Astelenean egin zan ilaren lenengo astelenetako peria eta soroan giro zalako edo iñof gutxi zan. Txefi gazteak besterik etzan eta oek ere galesti.

SANTI-KUTZ. — Oi baño elizkizun geiagorekin ospatu da aurten "Santikutz" edo guretze deunaren agerkunde eguna.

OTAFA.

RELOJES DE TORRE
LECEA Y MURUA
VITORIA

FORU'TIK

BIZKANGANE'RA.—Iragafita eguan bezela ospatu ziran "Txara-txara,,'k gertutako jayak. Goxian eguraldi txartxuba bazeguan baña alan da gusti be aldraka aundija egon giñan mendijan gora.

Amafak inguruan eldu gintzazan Metxika'ra, zafentzako tafantak, be ba ziran-eta, eurak ondo beterik eldu ziran. Bertara eldu gintzazanian ikusi genduzan euzko mofoskuak; abafkak oñetan eta euzko-brusak soñian ebezala. Au ikusi gendunian, ¡a zan atsegiña! Alakoxe gauza atsegingafija zan ixan be, ondiño gure oturak galdu barik ziranaren ezaungafija zan-eta.

Apañena
Novedades en género de punto
MAYOR, 6. — DONOSTIA

Amafetan beftako Gefnika'ko "Txara-txara" eta Emakumak abestu eben jaupa nagosija. Jaupa onen bitartian beftako jauparijak txonitz edef bat egin euskun euzkera garbijan. Onen ondoren aufeskuak, gero zariketa ugarijak ixan-ziran. Baña an zan Muxika'ko txindof-kumia be ta, abesti alaitsubak abestu euskuzan beronek, eban, eta nik diñot oraiñ? ez ete dira eurok beti azkatasunen bila dabiltzanak? eta olan ixanda, aiñ azkatasun saliak ixanda, ¿zelan Euzkadi Azkatasun barik? Ori da Sobeika'ko olo-zalien eta bere lagunen azkatasuna. ¡A kaiku-kaikuak! zulen esanak aintzat aftzen dituzanak, berak dauko efuba.

Igandian geure efijan oste andija ixango

Casa Arizmendi
Representante de la tintorería "Sin Rival". Mercería y fantasía
Narrica, 14. Tl., 14.305. Donostia

¡A au zan poza! ¡Efdera-zaliak zirala uste gebazanak euzkeraz pafa-pafa irakuften ikustia! Jafatu, ba, emakumak zuegan arkitzen da Euzkadi'ren azkatasuna-ta.

Onen ondorik Euzko efomerija. Asaba'zafen antzera dantza garbijetan jolastu ondoren 6 ta erdijetan Gefnika'runtz mendijan-ziaf asi gintza-zan, 7'ta erdijak inguruban Batzoki'ra eldu gintzazan. Aretan bete-beterik eguala Sabiñ'ek mai-genen igonda abestuten asi zan.

Jafatu olantxerik Sabin
jota keya atara,
eta ez gogafu ikusi arte
ufatuta Euzkadi'ren katia.

Farmacia Carrasco
Easo, 8, y Príncipe, 48. Tl., 11.604
DONOSTIA

GEXORIK.—Ikufton Deunak eta dirpurubaren onespena aftuta aufkitzen da Alezpeiti'taf M. Gurutz, eta Tofealdai'taf Julen, ogeratuta.

Ain bat lenen osatutia opa dautzegue.

IBAI-GANE.

A. BARANDIARAN
Toda clase de herramientas y maquinaria para talleres, minas y obras
MAYOR, 5. — DONOSTIA

GEFNIKA

Larunbatian, ilonen 7'an, gabeko bederatzietan Batzoki onetan izango dan Euzkel-jaya'ren.

Iragafkija:

"Itxarkundia.

"Jagi, jagi, euzkotafak".

"¿Zer gara?". Iñaki'taf Teleria'ren itzalditxua.

Nere txiki, nere polit.

Mafagafia zara.

Enbeita'taf Sabin euzko-olefkari gaztiaren itz-neuftuak.

Euzkadi recomienda el
HOTEL DE LA PAZ
Calle Echaide. Donostia. T., 10.741

Igandian Metxika'n egin ziran euzkel-irakuftesariketearen, sari-emotea.

Zu ixan ziñan, Sabin...

Aupa eta ifintzi...

Euzkeraz, beti euzkeraz egin daigun Isusi'taf Miren'en itzalditxua.

Euzkaltzaliak gara.

Goazen mendirik-mendi.

"Euzko Abendaren Ereserkia".

BELU-MENDU.

Tejidos y Confecciones
OTAÑO HERMANOS
Sastrería y camisería
San Juan, 11. T., 1-10-16. Donostia

IBAFAGELU

Aspalditsuban polito idazten dabe efi onetatik be, bai bafe naikua egin be "Ibafekuak" iñuazan k o n t u begi-begikukin. ¡Estramiñia zerbait gorago eta sokin labufago imiñi biafko jakela ango "pilosopuari!" ¡Orixe bai! "Ibafekua,,'k diñoen itzaldi aretan geu be antxe ixan giñan eta aren kirtenkerijak entzun eziola bai arin bultz egin be toki aretatik. Ofatiño baizan itziarijetatik bat Gora Euzkadi'gaz, bere itzaldija amafu ebana be, baña oneik Gora Euzkadi gaizkatu barik gura

Gran Garage Moderno
Reparaciones, suministros y accesorios
Calle Iparraguirre. Teléfono. 10-7-54
SAN SEBASTIAN